



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2020/07/08) Hurrengo saioa: 2020/09/09)	Natur ondarea berreskuratzeko proiektua	<p>Aranzadi Zientzia Elkarteko Mikel Etxeberria etorri da eta proiektuan zein pauso eman diren aipatu du.</p> <ul style="list-style-type: none">- Alegiako kartografia egin da (landare inbaditzaileak zerrendatu). Hemendik aurrera eman beharreko pausoak emateko Ura ur agentziari baimena eskatu behar zaio. Baimena eskatzeaz lker arduratuko da.- Proiektuaren txostenean jasotzen da emandako pausoen dibulgazioa izango dela eta aipatzen da komenigarria litzatekeela eman ahala zabalkundea ematea, herritarrek ekintzen berri izan dezagun. Bisita hauetan guneko bakoitzeko bioindikadoreak zeintzuk diren aipatzea ere garrantzitsua litzatekeela komentatzen da.- San Lorentzoko lur sailaren jabearekin akordiora iritsi eta erosketa burutuko da (0,25€/m²)- Mikel Kizkitzako pagadiaren lanketa egiteko Arbolinnoba enpresarekin jarri da harremanetan, hauen asmoa pagoen adar batzuk moztu eta argiguneak sortzea da, bertan landare berria sor dadin. Irailean Kizkitzako pagadian egin beharreko aktuzioaren dibulgazioa egitea aurreikusten da.- Kronograman jarritako epeak betetzen ari dira.	-Landare kopurua aurreikusi eta eskatu. -Aurrekontuaren arabera erabakiak hartu.
	Udalekuen balorazioa	Aurreko urteetan bezala udalekuetan parte hartu duten haurren familiei inkesta bat prestatu eta whatsapp-ez bidaltzea erabaki da, honetarako aurreko urteko inkesta moldatu da.	Balorazioak aztertu eta ondorioak atera



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2020/07/15) Hurrengo saioa: (2020/09/16)	Ondare naturalaren kontserbaziorako diru-laguntza	Proiektuari jarraipena ematea da asmoa eta irailera arteko epea egon arren, proiektua lantzen hasteko proposatuko zaio Arantzadi Zientzia Elkarteari.	
	Udal Bulegoen aldi bateko kokapena	Udaletxearen obrak uztailaren azken astean hasiko direnez, Udal Bulegoa elizatariko eskola zaharrera eramango da. Bertan Herritarren Arreta eta Gizarte Langilearen zerbitzua eskainiko dira ohiko ordutegian.	Jakinarazpena herrian zabaldu
	Udal Bulegoen abuztuko ordutegia	Abuztuan Udal Bulegoak izango duen ordutegia herritarrei helaraziko zaie jakinarazpen baten bitartez.	Jakinarazpena herrian zabaldu
	Herriko bideen ordenantza	Herri bideen erabilera arautzen duen ordenantza berria indarrean dago uztailaren 15etik aurrera. Herritarren eskura jarriko da: web orrian zintzilikatuko da eta ondoren lotura hori bidaliko da, bai whatsapppeztan eta baita posta elektronikoz ere. Herriko iragarki tauletan ere jakinarazpena jarriko da, dokumentua Udalean edonoren eskura egongo dela adieraziz.	Jakinarazpena herrian zabaldu
	Euskara sustatzeko ekintzak eta diru-laguntzak	Oraindik Udal diru-laguntza hauek indarrean jarri gabe daudenez (2019ko abenduan landutakoak), kopuruak eguneratuko egingo dira eta diru-laguntza hauek noiztik nora bitarteko epealdiari dagokien ere zehaztuko da.	Idazkariarekin batera, lanketari jarraipena eman



LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2020/07/29) Hurrengo saioa: (2020/09/23)	Baserri bideak	Haritzizabal eta Kamiño arteko zatia asfaltatuta dago. Orsa enpresak egin du, eta zati bat pinudiak ateratzeko ezarritako fidantzetatik ordaindu da, eragindako kalteengatik. Errebueltatik Eztala bitartean egin den zatia ere fidantzetatik ordaindu da. Iturritatik Altzigarragarako pista ere konpondu da: baserri bideetako eskonbroa eta todo-unoarekin egin da, eta guztia basozaleak jarritako fidantzetatik ordainduko da. Bestalde, udal-aurrekontuetatik, Atinbarreneko zatia hormigoitzea bukatuta dago eta Mendeungoa datorren astean.	
	S Lorentzoko pinudia	Abuztuaren 11a arte egin dezakete lan, zerrategiek oporrak hartuko dituzte-eta. Baina ziurrenik ez dute amaituko aurretik, beraz irailean bukatuko dute.	Bukatzean bidea ondo uzten bada, fidantza itzuli
	Udaleko eraikina	Dagoeneko ganbarako zoruko oholak kenduta daude, eta habexkak bistan. "Tecnalia" enpresakoek ikuskatu ondoren erabaki da Udal bulegoetako sabaiko pladurra mantentzea. Abuztuko lehen bi asteetan egurrak garbitzen jardungo dute, hirugarren astean oporrak, eta azkenengoan, zorua nibelatu eta andamioak jarriko dira eraikinaren buelta osoan. Irailean ipiniko dira, ganbarako zorua indartzeko CLT panelak, teilatutik sartuta	Udal teknikariek batera obraren jarraipena egin
	Ur Kontsortzioak Alegian	Barrendiolatik Arriarango urtegia doan hodia berritu behar du Alegia parean.	Lur jabeak deitu Kontsortzioaren bilerarako